

Eginkizuna, ikuspegia eta balioak 102-16

Gure eginkizuna

Gure eginkizuna da kontsumitzaileen bizi kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetuko duten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea gizarteari, kalitate, informazio eta prezio baldintzarik onenetan, kontsumo jasangarria sustatzeko konpromisoarekin.

Gure ikuspegia

1 Kontsumitzaileen beharrak eta eskaerak gure estrategia komertzialean txertatzea, gure dendak haien gogokoena izan daitezzen.

2 Langileak gure jardueraren erdigunean jartzea: enplegu jasangarria eta kalitatekoa sortzea nahi dugu.

3 Aberastasun gehiago sortzeko eta modu solidarioan banatzeko aukera emango diguten irabaziak lortzeko lan egitea.

4 Estrategian gizartearen osasunarekin, ongizatearekin eta garapen jasangarriarekin konpromiso sendoa txertatzea. Horrekin nahi duguna da:

- Bezeroei soluzio egokiak ematea etengabeko berrikuntzaren bitartez.
- Pertsonak integratzen dituen enpresa proiektu eta eredu bat sortzea.
- Langileen garapen pertsonala eta profesionala sustatzea.
- Espainiako merkatuan lidergo posizioak lortzea.
- Aberastasuna sortuko duen hazkundea ahalbidetzeko etekinak lortzea.
- Gure ingurunekeo ekonomia indartzea tokian tokiko hornitzaileekin.
- Kontsumitzaileak defendatzeko konpromisoa hartzea.
- Ingurumena errespetatzea eta horren aldeko kudeaketa bultzatzea.
- Gu gauden komunitatea hobetzen laguntzea.

Gure balioak

EROSKIn, bost balioak erakusten dute zein den gure enpresaren proiektua eta nola erlazionatzen garen gure jardueraren inguruko pertsonekin eta ingurunearekin berarekin:

Lankidetz

Langileak protagonista dira EROSKIn, ez bakarrik beren jabetzakoa den kooperatiban, baita gainerako sozietateetan ere, erakundearekiko konpromisoa dela medio.

Partaidetza

Kontsumitzaileen iritzia txertatzen dugu kooperatibaren estrategian haien partaidetzaren bitartez, eta geure bezeroei era aktiboan entzunda.

Gizarte erantzukizuna

Jarduten dugun komunitatearen ongizateari laguntzen diogu, eta, aberastasunaren banaketa solidarioaren bitartez, haren garapen sozialean, kulturean eta ekonomikoan eragiten dugu.

Berrikuntza

Uste dugu ezinbestekoa dela gure jarduera-eremuetan berrikuntzak etengabe egitea bai enpresak aurrera egin dezan eta bai gure jarduerak gizartean eta kontsumitzaileengan eragiten dituen itxaropenetara egokitu gaitzen.

Konpromisoa

Gure egunerokoan aintzat hartzen dugu kontsumitzaileen osasunaren eta segurtasunaren defentsa produktu sano, seguru eta osasungarrien eskaintza eginez eta informazio garden, baliagarri eta oso bat emanez. Aldi berean, gure jarduerak ingurumenean duen eragin ezkorra gutxitzeko lan egiten dugu.